

EHNE eta ENBA sindikatuok bateginik aurkeztu dute "Mendiko abelzaintzaren eta otsoaren populazioaren kontrolaren aldeko mozioa" Gipuzkoako udaletxe guztietan

Gipuzkoako nekazal sindikatuok, EHNE eta ENBA, lurralde historikoko udaletxe guztietan aurkeztu dugu **Mendiko abelzaintzaren eta otsoaren populazioaren kontrolaren aldeko mozioa**, otsoaren babesa gehitzeko izenean mendiko abelzaintzaren aurkako ekimenak gualtzen ari direla ikusirik.

2020ko martxoaren 13an argitaratutako Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua zen Iñaki Arriola sailburuak sinatutako arauaren bitartez otsoa Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoa aldatu eta otsoa (Canis lupus) «Interes Berezikoa» espeziearen kategorian sartu zuen.

Geroztik, 2021eko otsailaren 4an Transitzio Ekologikoa eta Erronka Demografikorako ministeritzako Natura Ondarearen batzordeak, otsoa babes bereziko erregimenean dauden espezieen zerrendan sartzea erabaki zuen, otsoaren populazioaren %95a baino gehiago ordezkatzten duten elkargo autonomoen ordezkariak aurka bozkatu arren.

Erabakia behin betikoz hartuko balitz Euskadiko abelzaintza estentsiboarengan ondorioak larriak eta berehalakoak lirateke, otsoen populazioa areagotuko litzakeelako gure mugakide diren elkargo autonomoetan eta honenbestez, Euskadin otso populazioak sartu eta egonkortzeko arriskua areagotuko genuke, eta honek, ondorio larriak ditu, bai gure mendiko abelzaintza estentsiborako bai ardi latxa bezalako arraza autoktonorako, babestu nahi diren mendiko larretokiak bezalako habitatak eta azkenik, gure gastronomia kulturaren zutabetariko bat den Idiazabal gaztarentzat.

Une honetan, azienda (ardiak, behiak, behorrak, pottokak, ...) mendian kudeatzen dugun abeltzainok, kezkatuta eta beldurtuta gaude otsoaren zabalkundearen aurrean orain arte bizitu dugun maneju estentsiboaren amaiera suposa dezakeelako eta honenbestez, erabakiaren azken helburua hori ez bada ere, abelzaintza estentsiboarekin amaitu eta erabateko maneju intentsibora joan beharko dugulako.

Honen aurrean, hitz politaz haratago, Udaletxe guztien babesa lortu nahi dugu eta horretarako ezinbestekotzat jotzen dugu, alderdi politiko guztiak bat egitea, abeltzaintza estentsiboaren defentsan.

Otsoa ez dago arriskuan, tamalez, mendiko abeltzaintza bai.

2021-03-22



Las organizaciones agrarias ENBA y EHNE presentan, conjuntamente, la moción "Por la ganadería extensiva de montaña y el control poblacional del lobo" en todos los ayuntamientos de Gipuzkoa

Las organizaciones agrarias de Gipuzkoa, ENBA y EHNE, hemos presentado en todos los ayuntamientos del Territorio Histórico la moción "Por la ganadería extensiva de montaña y el control poblacional del lobo" al observar que están incrementándose las propuestas contrarias a la ganadería extensiva en aras a aumentar el nivel de protección del lobo.

El 13 de marzo de 2020, su publicó en el BOPV la orden firmada por el Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, Iñaki Arriola por la que se modifica el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas, y se incluye el Lobo con categoría de especie de interés especial.

Posteriormente, el 4 de febrero de 2021 el consejo asesor del Patrimonio Natural del Ministerio de Transición Ecológica y Reto Demográfico decidió incluir el Lobo en el listado de especies silvestres de protección especial, a pesar del voto contrario de los representantes autonómicos de aquellas comunidades que representan más del 95% del censo de lobos.

Si la decisión fuese definitivamente adoptada, las consecuencias para la ganadería extensiva de Euskadi serían graves e inmediatas, se aumentaría la población de lobos en las comunidades limítrofes y con ello, se incrementaría el grave riesgo de que los lobos entren y se estabilicen en Euskadi con todas las consecuencias que ello acarrearía tanto para nuestra ganadería extensiva como para nuestra raza, la oveja latxa, para el habitat de prados montanos a proteger y finalmente, para la joya de nuestra cultura gastronómica, el queso Idiazabal.

En estos momentos, los ganaderos que con su cabaña (ovejas, vacas, yeguas, pottokas, ...) gestionan el monte están preocupados y temerosos porque la expansión del lobo puede suponer el fin del manejo extensivo y si bien puede que el fin último de la decisión no sea ése, no es menos cierto que los ganaderos nos veremos abocados a un manejo intensivo de la ganadería.

En esta tesitura, más allá de las palabras bonitas, queremos el respaldo de todos los ayuntamientos y para ello, creemos imprescindible recabar el apoyo de todos los partidos políticos en la defensa de la ganadería extensiva.

El lobo no está en riesgo. Desgraciadamente, la ganadería extensiva, sí.

2021-03-22

“Ganaderitza estentsiboaren eta biodibertsitatearen aldeko manifestua”

Ganaderitza jarduerarekin eta landa eremuarekin lotura duten askotariko kolektiboren, elkarteren eta erakunderen izenean

AZALTZEN DUGU:

Lehenengoa. – Milaka urtetan artzantzan eta ganaderitza estentsiboan aritzen diren pertsonak Euskal Herriko mendietako paisaia moldatu dute jarduera horren bidez. Egun paisaia natural gisa ulertzen dena, mendi eremuekin lotura duena, erabat gizatiartutako lurraldea da, izan ere, etengabeko ganaderitza jarduerak balio handiko paisaia ingurunea bilakatu baitu eta geroago administrazioek inguru horiek mantentze aldera Babestutako Eremu izendatu dituzte.

Etengabeko lan horrek gure mendiek, zelaiek, basoek eta bestelako ekosistemek duten biodibertsitatea zaindu ditu. Era berean, egun 2000 Natura Sarearen baitan dauden habitat gehienak artzantza estentsiboa egiten den eremuak izan dira eta egun ere badira: errealitate horren eredu dira Salvada, Gorbeia, Arkamo-Gibijo-Arrastaria, Entzia, Pagoeta edo Aralar. Horrez gain, Euskal Herrian dauden interes komunitarioa duten habitaten ehuneko handi batek ganaderitza jarduerarekin lotura zuzena dute, milaka hektarea, alegia.

Hori guztia dela medio, gure arbasoen ondarea aldarrikatu nahi dugu, izan ere, egungo paisaia horiek guztiak haien jardueraren oinordetza baitira: pertsonen jardueraren eta naturaren arteko elkarbizitzaren lekuko dira, bizi erritmoak errespetatu dituztenak.

Bigarrena. –Gaur egun ganaderitza estentsiboan diharduten pertsonak Euskal Herriko mendietan lan horrekin jarraitzeko asmoa berretsi dute. Era berean, ekosistemak babestearen eta larreen aprobetxamentu estentsiboaren arteko oreka bilatzeko beharra nabarmentzen dute, baita beren eguneroko lana ingurumena errespetatzeaz gain, egungo bizitzarekin bateragarria izatea eta hurrengo belaunaldientzako ganaderitza jarduera erakargarria izatea ere. Ingurumen aldetik ezarritako baldintzek beste ezeren gainetik indar gehiago hartuko balute eta ezinezkoa bilakatu ganaderitza jarduera, ezinbestean belaunaldien arteko erreleboa bertan behera geldituko litzateke, baita ganaderitza estentsiboaren etorkizuna eta honek egiten dituen askotariko ekarpenak ere.

Ziurgabetasunak eta bizi kalitatearen galerak dira faktore guztien artean eragile nagusiak etorkizunean edozein jarduera geldiarazteko. Ganaderitza jarduera ez da salbuespena eta nekazaritza politketan hartzen diren erabakien eta merkatuen joeren ondorioz, baserrien kopuruak behera egiten du etengabe, baita larreen onargarritasun koeffizienteak ere.

Aintzat hartu behar dira kontserbazio politikak lantzerako orduan, landa eremuak, bertako jarduerak lurraldearen zaintzan, biodibertsitatearen babesle bezala, ondare kulturalaren transmisio eta babesean, baita eragile ekonomiko gisa ere egiten duten funtzioa, lortu nahi diren helburuen kontrako emaitzik jasotzerik nahi ez bada.

Beharrezkoa da kontserbazioaren karga gizarteko eragile guztien artean era berdinean elkarbanatzea ekainaren 30eko 16/1994 Euskal Herriko Natura babesteko legearen atarikoan agertzen den bezala: "Lege honek jakin badaki, babesa eman behar zaien lekuen ezaugarri sozioekonomikoak direla eta, babesa hala nola emanaz gero, eskuratu nahi diren ondorioen ordean bestelakoak lor ditzakeela. Gune hauetarik asko eta asko, maila sozioekonomiko eskasa dutenetan sarritan populaziorik gabe geratzen ari diren tokietan baitaude. Jendegabetze-prozesu hori aldatu beharrezkoa da gainera, lurraldeko egitura ekologikoari gizakiaren presentziak eusten dionez. Horretarako, beharrezkoa da ekonomi eta gizarteko arloek parte hartzea, horrela, natura-baliabideei behar bezalako probetxua ateratzea, naturaguneetako biztanleen onerako izan dadin; azken finean, Autonomia Elkartearen biztanleen onerako. Horrekin gizartearen bidegabekeria bat konpondu nahi da, hiri- eta industria-gune handiei azpiegitura eta zerbitzu gehiago eskaintzeak, gure gizartean, nekazaritza-mundua baztertuena egotea ekarri du eta".

Hirugarrena. – Gure mendietan lanean diharduten ganaduzaleek ingurumena babesten jarraitu nahi dute, baina era beran beren bizimodua kultura eta tradizioa ere mantendu nahi dute, artzantzarik eta ganaderitzarik gabe mendiek beren oinarritzko ezaugarriak galduko dituztelako.

Ganaderitza estentsiboak bere baitan ezagutza eta esperientzien ondare multzoa gordetzen du, populazioa mantentzen du gizarte egoera ahuleko eremuetan eta eskualdeen arteko integrazio soziokulturalerako eta elkartrukerako bideak errazten ditu, baita kohesio sozial eta identitate kulturalerako elementuak eskaini ere.

Laugarrena. - Euskal Herriko gizartearentzako elikagaiak ekoizten ditu ganaderitza estentsiboak tokian tokiko baliabide naturalak baliatuz. Esate baterako, eta bereziki, Idiazabal gaztak bere ingurunean dituen baliabideak erabiliz zortzi mila urtetan, ia aldaketarik jasan gabe, ekoitzi dugu. Neolitiko garaitik artzaiek eta ardiek bide jakinak jarraitu dituzte urtaro ezberdinetan: mendietako larreak udaberrian, udan eta udazkenean eta eskualde ezberdinetako haranetan neguan, elikagai naturalaren zikloa aprobetxatuz.

Horrenbesteko fama eskuratu duen gure gastronomiaren eta sukaldaritza kulturaren oinarri bilakatu diren Idiazabal gazta, esnea, mamia, arkumea eta haragia gure mendietako artzantzatik eta larreetatik iristen dira.

Ganaderitza estentsiboa mantentzeak ekarri du halako jarduerarik izango ez balitz erabili gabe egongo liratekeen baliabideak modu ezin hobean aprobetxatzea: hala kutsadura oso baxua eragiten duen jarduera ekonomikoa sortuz, kalitate altuko elikagaiak ekoitziz, elikadura segurtasuna bermatuz, gertutasunez, kanpoko dependentzia murriztuz eta turistikoki erakargarriak diren baliabideak sortuz.

Lurrari lotutako lan horren ondorioz, bertako arrazak sortu dira eta horietako asko gaur egun oraindik ere mantentzen dira. Horietako batzuk galtzeko zorian daude, baina beste batzuk egoera onean eusten diote urteen joan etorriari. Bertako arraza horiek denak ondare ekonomiko, zientifiko eta kulturala osatzen dute, baina batez ere biodibertsitateari eta aldagarritasun genetikoari ekarpen handia egiten diote. Arraza horien babesak ez dute soilik erakunde kontserbazionistek eta ingurumena babestearen aldekoek egiten, FAOk (Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundeak) kontserbazioaren alde egiteaz gain, arraza horien profil produktiboa ere aintzat hartzen du.

Bosgarrena. – Euskal Herrian egiten den ganaderitza estentsiboa eta otsoaren presentzia bateraezinak dira arrazoi sozialak direla medio. Horrez gain, otsoen erasoak eragindako kalteak kalteordainen bidez konpontzea planteatzeak ez du zentzurik sekula ganaduzaleen eta otsoaren arteko elkarbizitzarik izan ez den bailaretan, ez baitute benetako ordainik aurreikusten; izan ere, benetan sortzen dituzten kalteak ez baitira ekonomikoak, baizik eta sozialak, ganaderitza estentsiboan jarduten duten pertsonen bizi kalitatea okertzen baitute.

Gaur egun Mehatxatutako Basa Animalia, Landaretza eta Itsas Espezien Katalogoan 361 espezie daude, horietako 88 desagertzeko arriskuan daudenak, nahiz eta horietatik 8 bakarrik agertzen diren Espainiako Mehatxatutako Espezieen Katalogoan. Katalogatutako 361 espezie horietatik 16k bakarrik dituzte kudeaketa planak. Horrez gain, desagertzeko arriskuan dauden beste zortzi espezie horietako batek, bisoi europarrak, Europa mailako kudeaketa plana du. Bestetik, ez Habitaten Zuzentarauak ezta CEEAk ez dute iberiar otsoa desagertzeko zorian dagoenik adierazi: lehenak, V Eranskinean sartzen du espeziea (interes komunitarioa duten animalia eta landaretzan sartzen du, Duerotik gora kudeaketa neurriak hartzeko aukera ematen duena); bigarrenak, berriz, basa animalia gisa definitzen du babes berezia behar duena Andaluzian, Gaztela-Mantxan eta Extremaduran.

Otsoaren izaera arautu honek adierazten du azken urteetan nabarmen garatzen ari dela, esate baterako Gaztela eta Leonen %20 gehitu da otsoaren presentzia 2001 eta 2014 urteen artean. Datu horiek adierazten dute iberiar otsoaren egoera bere eremu naturalean osasuntsua dela. Adituek diote otsoaren kopurua handitzeak bat egiten duela landa eremuko biztanleen kopuruaren jaitsierarekin. Hori dela medio, ez da arraroa otso populazio handiena Leon inguruan kontzentratzea (2013ko urtarrilaren 1ean populazio dentsitatea 31,4 biztanle/km²-ko zen) edo Zamoran (populazio dentsitatea 17,9 biztanle/km²) eta Euskal Herrian haren garapena zaila izatea (301,1 biztanle/km²). Datu hauek badirudi ez zaizkiela axola edozeren gainetik gure lurraldean otsoa sartzeari planteatzen dutenei, badakite beren interesak bete behar benetan landa eremuan bizi eta lan egiten dutenen kontra egiten dutela. Bost axola izateaz gain, sarritan mehatxu egin izan dute Idiazabal gazta bezalako produktuei boikota egingo diotela edo Europako Batasunari Euskal Herriko ganaderitza sektoreari eskaintzen zaizkion diru laguntzak kentzeko eskatuko diotela. Argi eta garbi utzi izan dute zeintzuk diren beren lehentasunak eta ganaduzaleei baita haien jarduerari ere ematen dioten garrantzia.

Faktore horiek guztiek otsoak gure ingurunean duen gaitasun kulturala oso baxua dela adierazten dute. Datu horiek aintzat hartuta otsoaren presentzia eta garapena Euskal Herrian egokia litzatekeen aztertu beharko litzateke. Beste lurralde batzuetan otsoak zabortegetara joaten dira jatera, beren hedapenean lagunduz; Arabako Batzar Nagusietan esan da penintsularen ipar-ekialdetik Pirinioetarako bidea Iberiar Sistematik egingo luketela, beraz, era batera edo bestera onartzen da Euskal Herria ez dela ezinbesteko lurraldea espeziearen kontserbaziorako.

Ondorioz, argi gelditzen da otsoa Mehatxatutako Basa Animalia, Landaretza eta Itsas Espezien Katalogoan sartzea eskatzen dutenek ez dutela aintzat hartzen espezieak duen hedapenerako eremu naturala (49.-1.- 1/2014 Dekretu arautzaileak jasotzen duen bezala), baizik eta beste interes batzuk dituztela.

Kontraesan handia suposatzen du ganaderitza estentsiboa babesteak eta otsoaren presentziaren alde egiteak, ez maila ekonomikoan soilik (batzuk ganaduekin lan egiten dutelako eta beste batzuk otsoaren alde teknikitik edo aisialditik diru sarrerak eskuratu nahi dituztelako), baizik eta maila sozialean eta kulturean. Horrez gain, kontserbazioari dagokionez eta ingurumenari dagokionez gatazka sortzen da: batzuk jasangarriak diren ekoizpen sistemen gaintetik (zeinak aldagarritasun genetiko handiagoa duten edo askotariko habitatak eta espezieak babesten dituzten) espezie bat jartzen dutelako.

Horrek guztiak galdera hau egitera garamatza: Zein egoera eragin nahi dute otsoa desagertzeko zorian dagoen espezie gisa Mehatxatutako Basa Animalia, Landaretza eta Itsas Espezien Katalogoan sartu nahi dutenek? Arrazoizko erantzun bat jaso nahi izanez gero, beste lurralde batzuetan (non otsoa ez dagoen desagertzeko zorian) zer eskatzen duten entzutea besterik ez dago. Esate baterako, Asturias eta Castilla leonen "190 otsoen sarraskia saihestu" nahi dute; Komunitate hauetan eskaini diren ehiza baimenei egiten diete erreferentzia. Eskaera honen ondorioak agerikoa dirudi: espezie horretako banako guztiak erabat babestea, ez daitezen kontrolatu eta gaixotasunak eta beste animaliekin eduki ditzaketen borroak izan daitezen otsoaren heriotza eragin ditzaketen kausa bakarrak, gauza guztien gaintetik, beste espeziei, habitatei edo pertsoneri zer eragin dakiekeen kontuan hartu gabe.

Horregatik guztiagatik, **ESKATZEN DUGU:**

1.-Euskal erakundeen konpromisoa

- Ganaderitza estentsiboak duen ekoizle profiletik haratago hainbat funtzio betetzen dituela kontuan har ditzan: esaterako, habitatak, lehentasunezko espezieak, katalogatuak, gure ingurunea eta paisaia, baita kultura ere babesteko egiten duen lana.
- Ganaderitza estentsiboa sustatu dezan, batez ere bertako arrazekin eta desagertzeko zorian dauden arrazekin lan egiten denean, horiek baitira bestela erabiliko ez liratekeen baliabideak aprobetxatzen dituztenak (hala egingo ez

balute kanpotik ekartzera derrigortuta egongo lirateke) ekoizpenean eta kontserbazioan oreka dakartenak.

2.-Kontuan hartuta iberiar otsoaren kontserbazio egoera ona dela bere eremu naturalean (Duero iparraldean) zuen Departamentuak espezie hau ez dezan Desagertzeko Zorian dauden Espezieen Euskal Katalogoan sartu, Espainiako Desagertzeko Zorian dauden Espezieen Katalogoan sartuta ez dagoen bezala edo maiatzaren 21eko CEEko Kontseiluaren 92/43 Zuzentarauaren II eta IV Eranskinean agertzen ez den bezala.

3.-CEEren 92/43 zuzentarauko 16.1.a eta 16.1.b artikuluetan agertzen den bezala euskal erakundeek martxan jar ditzazuen kontrolerako neurri eraginkorrak, otsoa gure bizimodua arriskuan jarriko duen mehatxua bihur ez dadin, gure lana eta gure sostengua bidera ezinak egin ez ditzan, Euskal Herrian ganaderitza estentsiboa desagertzera bultza ez dezan, ezta jarduera honek sortzen dituen ekoizpen, ingurumen eta askotariko funtzioen ekarpena ere.

EHNE Konfederazioa

ENBA Bateginik

Euskadiko Elikagai Kooperatiben Federazioa

IDIAZABAL Jatorrizko Izendapenaren Kontseilu Erregulatzaila

Artzai-Gazta

LORRA

ABERE

AGA

LURGINTZA

ABELUR

Gipuzkoako Albaitarien Elkargoa

Land@ XXI landaguneko emakume eta familien elkarte

ADR Izki

ADR Lautada

AGORALA

ASGAFAL

ALE

ARASEL

ARATEL

ARPIEL

ASAGRA

ASCUAL

ASGAEQUINO

ASGOCAL

ASGAPOAL

Asociación Alavesa de Pottokas

Coop. Latxa Esnea

Coop. De Idiazabal

Garsabi

ELE

GIFE

HEBE

GITXAEL

GIMEBEL

GITEL

GIBEL

Gipuzkoako Limusin Elkartea

Gipuzkoako Blonda Elkartea

Gipuzkoako Astozaleen Elkartea

Gipuzkoako Pottokazaleen Elkartea

Euskadiko Pottokazaleen Elkartea

BIFE

ASGAPIR

BLAE

BBE

ACOL

BITEL

BIBEL

BIMOEL

BITXEL

BIZKAIKO POTTOKA

BIZEL

BISAREL

AVASCANE

BIAGE

ITXINA

GORBEIAZPI

ASOCIACION GANADEROS de ABADIÑO

AGAMUGA

POZUZARRETA

ARTAIO

ASBIZBUEN

AÇCBI



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SIERf280e19c-0233-4838-b446-2ad709be240b**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>**